

ASTOA TA ZINBURRUNA

Arnas ezilkorra zelai sabelean,
Aren atsa galduz zeru zabalean.

Baso, landa ta txara oztin,
Izadia dager amesmin.

Baratz ta muintegi estanda bultzkorrez,
Goi ta bee osorik iratzar bearrez,

Biziaren ler-naia dozu,
Euts-eziñeko erditze uzu.

Kepa artzain txikia, giro eder zale,
Txirul-oska ibilli yatzu mendi-alde;
Baiña, euzkiak galdatzean,
Aztuta itxi dautzu munean.

Txaraz gaiñaldeko barruti ixillean
Anton'en astoa daukazu larrean.
Gardu, elbitz, azki ta larra,
Zanpatu bear dau gilborra.

Mugita-gain datza zinburrun itxia.
Panpox, nasai jaten belarri andia...
Ez daki arek iñundik be
Zer tresna daukon mutur aurre!

Jan ta jan piztiak; mugita bere jan,
Ta orra... aize emon zinburrun zuloan!
Arek bai soiñu ederra
Intziri ebala lasterra!

—«Oi! —astoak ordun—. Nik bai jo ederto!
Ba-naz zertxobait! Ez, enok ain mokolo!
Esku-ezpan dabil artzaiña,
Muturrez jo dot nik ak aiña».

Erti-aurikan
Batño ikasi barik,
Iñoiz molda ete
Akats bako lanik?